

## **Udal Erregelamendu Organikoaren hasierako onarpena.**

Udalbatzak, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita hamarrean egindako osoko bilkuran erabaki zuen hasieran onartzea Udal Erregelamendu Organikoa.

Toki Arautegiaren Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, 30 eguneko epea zabaltzen da jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko, epe horretanerreklamazioak eta iradokizunak aurkez daitezkeelarik.

Iragarki hau BAOn, Udalaren Ediktu-oholean eta webgunean argitaratuko da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da.

Jendaurreko epean zehar espedientea Kultura Sailean begiratu ahal izango da, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2016ko uztailaren 6an.

Alkatea  
Xabier Cuéllar Cuadra